Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Martzel Garitagoitia Arriaga

Mallabia, Bizkaia
(1922-2016)



Aurkibidea

Biografia



Gerea auzoko Goikoetxe baserrian jaiotakoa 1922an. Eskolara joatea gustuko zuen, baina baserriko lanak zirela eta, laster utzi behar izan zituen ikasketak. 11 urterekin umezain joan behar izan zuen. Gero, gerra sasoian, Ermuko Ongarai baserrian egon zen morroi. Antzinako bizimoduari buruzko azalpen interesgarriak eman zituen egindako elkarrizketetan. Ahaztuen Oroimena taldekoek ere egin zioten elkarrizketa, gerrako bizipenak jasotzeko (ikusi euren webgunean).

Zintak

MAL-018

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Mallabia.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2005-06-20
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane

MAL-019

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Mallabia.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2005-06-20
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar

MAL-034

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Mallabia.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2006-06-09
- **Iraupena**: 40 min
- **Euskarria**: MiniDV

MAL-035

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Mallabia.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2006-06-09
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV

MAL-042

- **Proiektua**: Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Data**: 2005-01-01
- **Iraupena**: 40 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Emalea**: Zuazo Zelaieta, Koldo

MAL-051

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2010-03-22
- **Iraupena**: 73 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

MAL-062

- **Proiektua**: Ahaztuen Oroimena
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Bereziartua, Aitor - Ibarzabal, Patxi - Unamuno, Alberto
- **Data**: 2015-01-01
- **Iraupena**: 71 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. Baserriaren egitura; komunikazioak...

- **Erref**: MAL-018/001
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:
Jatorria. Gerea auzoko Goikoetxe baserrian, 1922ko apirilaren 26an. Baserria nolakoa zen. 1949an berriztu zuten. Ordura arteko egitura zelakoa zen. Apopilo bezala jende asko egon zen. Duela gutxira arte biderik ez bertaraino. 3 autobus Ondarroara joateko: Ituarte, frantsesa eta "txaperue".

2. Posta nola heltzen zen baserrietara

- **Erref**: MAL-018/002
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:03:40. **Bukatu**: 00:04:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:
Mallabiko aguazilak kartero lana ere egiten zuen. Korreoa nola jasotzen zuten.

3. Baserriaren egitura; aurrerakuntzak

- **Erref**: MAL-018/003
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:04:55. **Bukatu**: 00:06:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Baserriaren egitura bera umea, gaztea zela. Egurtokia; arditokia. Ur-korronterik ez zuten artean.

Transkripzioa
- Eta basarrixak, esan dozu, distribuziño ona zekala. Habitaziñuak eta...
- Bai, bai. Ba, esaten dotsut, zer bat, portal bat, ez zera, e? Oingo zera, hori harrizko harri edarrok eta horrek ez, e? Holako... korriente bat. Portal haundi bat euken. Egurtokixe ezkerrien eskumako ate haundi batekin, esan dodana, arditokixek, haundi bat. Haundixe, e! Bai, bai, han berrehun ardi sartuko zien. Guk ez gendun sekulo berrehun euki, eukiko genduzen, ba, berrogei edo holako bat.
- Bai, baiña kapazidadia...
- Baiña kapazidadia beuken harek. Handik mailla bi, akordun [duket] ondo, hiru mailla, hiru. Sala bat, sala majo bat, holantxik ezkerrien ate batekin kuartu bat. Mutillen kuartue, e? Mutillena, ze mutil mordue giñen ta han ohe biko gelie, kuartu bat. Eskuman beste ate bat sukaldera. Sukaldie beheko sue, e? Beste gauzaik ez, e? Beheko sue ta ure... errekan. Ura... Ta handik gero eskumara sala edar bat; bai, sala majo bat euken. Ta salian parien hiru ate filan holan ta hiru kuartu filan eukezan. Distribuziño politte euken. Zaharra zala. Zaharra akabo zelakue! Ez dakit nik...
- Aitta zan bertakua?
- E?
- Aitta zan bertan...?
- Bai, bertan jaixue zan.

4. Aitona-amonen inguruko kontuak

- **Erref**: MAL-018/005
- **Iraupena**: 0:05:35. **Hasi**: 00:06:55. **Bukatu**: 00:12:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Aittitta (Pedro) eta amamaren inguruko kontuak. Zaldibarrera joan ziren bizi izatera. "Ardangelie", ardo zahagiak gordetzen ziren tokia. Baserritarrek ez zuten ia ardorik edaten; ardo korrientea ganaduari emateko ohitura zegoen (txahala egindakoan...). Aittitta nolakoa zen. Tarrañuelak jotzen zituen.

5. Mallabitik Zaldibarrera oinez

- **Erref**: MAL-018/006
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:12:30. **Bukatu**: 00:14:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:
Aittitta eta amamarengana Zaldibarrera oinez joaten ziren. Zengotitatik, Ariatzu menditik behera.

6. Aita soldadutza egitera Melillara joan zen

- **Erref**: MAL-018/008
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:16:20. **Bukatu**: 00:18:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Aita soldadutzaegitera Melillara joan zen.

7. Ama neskame egondakoa Bilbon; etxean apopiloak hartzen zituzten

- **Erref**: MAL-018/009
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:18:10. **Bukatu**: 00:20:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Euskara » Euskararen egoera
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Ama neskame egon zen Bilbon. Erdaraz oso ondo zekien. Baserrian izan zituzten apopilo erdaldunekin oso ondo ulertzen zen. Maistrak eta abadeak hartzen zituzten etxean.

Transkripzioa
- Orduan, aitta gerran egondakua... edo soldau.
- Bai.
- Eta, ama, kriada Bilbon.
- Bai, ez dakit etxe baten edo gehixautan egon zan. Dakit, ta, gaiñera, gauza... gauzie ikesi ein eban, e! Hak ekixen gauzie... kozina modure, ta... esan gure dot: ekixen biherrien. Biherra, etxeko martxie, ez “como madre de casa”, hori, ba, zan... ikesi. Ikesittekue. Ikesittekue.
- Erderaz be ikasiko zeban.
- Bai! Baitte baitte, baitte! Erderaz perfektamente ekixen hak, bai, bai, bai. Hagaittik gurien egoten zien ba apopilluek! Danak izeten zien erderazkuek, danak. Euskeldune hauxe, Ariztondo.

- Bai, ez? Bestela maistra eta abade guztiak kanpotarrak eta…
- Ez, abadiek euskeldunek. Abadiek e… Bai, danak, danak. Aber, aber… Bai, danak, danak euskeldunek; hamengoxe Arratixekuek, ta… bai, Lemona, Iurre… Arratixekuek, hamenguek, hamenguek, bai.
- Orduan, maistrekin behintzat eingo zeban erderaz, ez?
- E… baiña bixek batera ez zien sekule egon, e! Maistrak egon zienien abaderik ez gendun hartzen.
- Bai, bai, gaiñera…
- Ez, ez, formal, e! Hori be holan da. Maistrak egon zien, bai, lau bat behintzet bai, hango ta horko, ta azkenengue maistrie eon zan. Abadiek e… abadetxie e… eurek arreba bat-edo ekarteko modun eukenak abadetxie euken eta hara etortzen zien bizi izeten. Baiña beste batzuk, ba, hogeta hiru urtekin abade ein ta, mutikotxuek, ta harek igul ez eban eukitten iñor ta harek gurera… gurera etorten zien. Hemen esaten otsien, hemen, Trabakun, hemen preguntatzen eben. Hor “La Esperanza” autobusien bajatzen zien ta, ba, direkziñua ekarriko eben, Trabakua […], ta hamen galderak, aber nun geratu leiken apopillo. Hona etorteko, ba, oiñez... neguen-ta ezin, ezin, kilometro bi eskas ta, ba, bueno, txarto. “Jun zaittez Martzelengana, Goikoetxera” ta danak hara ta hartzen genduzen.
- Bai, ez?
- Hartzen genduzen ta han egoten zien. Oin, lehenengotik esaten jakuen, e: “Gurien gero… gurekin familixie formau biher dozu ta hau etxe zahar hau [adaptau] biher dozu /biozu/ ta holan izen biher dau /bidau/, e!”.
- Jateko dauena hori da…
- Ta “Bai, bai, konforme” ta “konforme”. Komune, adibidez, ba, oholezko komune, alturiakin, holakoxe altura bat, jarri… jarri modure egoteko, ta… komune; handik ikuillure, kortara, juten zan zera, zikiñe, ta… Enfin.
- Baiña adaptatzen zian, ez? Konforme egoten zian.
- Bai, bai, bai. A! Konforme ez euenak ez euken zereiñik han!

8. Umea zela (11 urte) umezain joan beharra, eskola utzita

- **Erref**: MAL-018/010
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:20:55. **Bukatu**: 00:22:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Eskolan erdaraz egin behar izaten zuten. Eskola kontuak. 11 urterako umezain joan behar izan zen; baina eskolara joatea asko gustatzen zitzaion.

9. Antzinako sukaldeak; tresnak

- **Erref**: MAL-018/011
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:22:55. **Bukatu**: 00:26:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
Sukaldea nolakoa zen. Beheko sua; "suarkie"; mahai borobila; "ixillue" (armairu antzeko bat); tximinia...

Transkripzioa
- Basarrixa... Beheko sua esan dozu lehen, sukaldian beheko sua besterik ez zekazuela. Goguan dakazu beheko sua nun egon zan?
- Ba, nun?
- Erdixan edo baztar baten edo...?
- Ba... Bai, baztarrien. Baiña ertz baten. Hau izetie moduen, ba, hortxe beheko sue. Alde bixetan, alde bixetan... Orduen, gaiñera, izeten zan, ba, berotu biher bazenduzen hankak... Gero suarkie esaten jakona, holako alturatxo bat eukitten eban suek bueltan. Ha izeten zan egurrezko zer bat, kuadro bat. Hamen eitten zan sue, ta hamen bueltan jentie egoteko, hamen egoten zan, ba, alturatxo bat. Silliakin hara arrimau, hankak hemen ipiñi ta hankak epeldu edo berotu edo... Orduen ez euen kalefaziñoik!
- Eta zelan deittu detsazu horri?
- Suarkie, suarkie. Suarkie deitzen jakon hari egurrai; egurrezko kuadrotxo bat. Kuadrue ez zan izeten, rektangularra; baiña igul da. Hau kuadruau baiño rektangularra gehitxua´ ha. Ta sue hemen.
- Hankak ipintzeko bertan eta...
- Bai, hankak eta... galtza bustixek eta siketu biher zienak eta!
- Bai, bai.
- Bai, holan. Ta han, ba, iguel sartuko zien sei-zortzi silla-edo bueltan; edo sei edo zazpi edo holan. Gero, mahai biribil bat. Mahai biribil bat sukalde... familixa dana sartzeko modukue. Ta sillak, [behintzet, sillak], nik goguan dauket, mahai bueltan. Ze mahai biribillien jente asko kabitzen da. Izen leike hauxe baiño haunditxuaue zeozer, baiña han sartzen giñen danak. Danak. "Taka-taka-taka", sillak buelta guztien, ba, zortzi-beratzi lagun. Ta haxe. Haretxek euezan. Ta euezan... isillue esaten jakon armaixo modoko bat, isillue.
- Isillue...
- Bai, "isillua" zuek esanda, gipuzkera "isillua" izengo da. Ta izeten zan jarri-leku ta guztiko zer bat, ta bastante, bastante zera, iguel aldenik aldenekue ta gora eukitten eban... Behien aramaixo modukue honako alturaiño; ta goixen koillarak-eta sartzeko, sartu ta holan eskegitte ipintteko zer bat, zer bat, tallau bat edo holako dibujo bat. Han "dak-dak" koillarak siketzeko ta han egoteko han ipintzen zien. Platerak sartzeko beste rejilla bat; rejillatxo bat ta platerak "dazst, dazst" sartu. Gaurko... ze esango dotsut? Lababajillasien sartzen dien antzera edo? Han sartu ta haintxe egoten zien ontzixek bistan. Bistan. Armaixuek...
- Isillue.
- ... horrek zien. Gure sukaldien euezenak horretxek zien.
- Eta gero eukitzen zenduen gelatza edo lapikua...
- A! Bai, hori bai, tximinixie. Hor sue ta, ba, tximinixie, ba, saliente bastante zera. Iguel eukiko eban metro bat edo zera saliente pareteti, ormati, ta ha forman juten zan holan: kanpana eitten, gora estutu eitten zan. Goixen, ba, gero tubo moduko baten urtetzen eban kanpora teillatuti gora, baiña behien, behien, suan... hau, suarkie dana hartzeko besteko tximinixie izeten zan. Ha tximinixie [han behera izeten] zan, ba, gauza asko kabitzeko lekue eukitten eban. Hak eukitten eban bordillo bat, ba, jenero asko sartzeko modokue. Ni morro´ egon nitzenien --atzo, lehengun esan [neuen], ba?--, orduko su-tximinixan tabakue, orduko su-tximinixan ez dakit zer. Ba, hori da leku bat gauza asko egoten zana, egoten zana. Euren zera, ba, espaziotxue, hau baiño zabaltxuaue, honen bixon zabalera

ingurukue, tximinixati han buelta guztien. Ta hamen, ba, jenero asko sartzen zan. Jenero asko sartzen zan. Bai, bai. Holan, ba.

10. Sukaldeko tresnak

- **Erref**: MAL-018/012
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:26:45. **Bukatu**: 00:29:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
Sukaldean izaten zituzten tresnak: parrila; trebera. Jatekoa non prestatzen zen.

11. Logelak nolakoak; koltxoiak

- **Erref**: MAL-018/013
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:29:55. **Bukatu**: 00:31:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Logelak. Koltxoiak nolakoak izaten ziren. Etxean ardilanazkoak zituzten; morroi egon zenean arto-malutazkoak ezagutu zituen.

12. Argindarra baserrira noiz eta nola ekarri zuten

- **Erref**: MAL-018/014
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:31:15. **Bukatu**: 00:34:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Argindarra. Auzoan baserri batzuk elkartu eta ur-jauzi bat jarri zuten. Argi gutxi ematen zuen. Gerora alternadore bat ekarri zuten. Ur jauzirako ura errekatik hartzen zuten (Artibai). Oiz menditik jaisten ziren errekak (Artibai, Lea eta Mundaka). Argia, baserri batetik eman eta kentzen zen kableen bidez. Sarritan argirik eman ezin (elurra zelako...).

13. Argindarra inguruko auzoetan

- **Erref**: MAL-018/015
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:34:35. **Bukatu**: 00:36:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Argindarra ez zegoen auzo eta baserri guztietan. Longan ere presa bat egin zuten beranduago. Urteetara, Iberduero sartu zen inguru guztietan. Argindarra eduki arte, karburo edo petrolioarekin moldatzen ziren.

14. Ur-korrontea baserrian

- **Erref**: MAL-018/016
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:36:25. **Bukatu**: 00:40:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Euskara » Lexikoa
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Bera umea zela ura etxearen kanpoko aldera ekarri zuten. Ordura arte erretenean etortzen zen. Arropak nola garbitzen zituen amak. Errekara joan behar izaten zen; bertan sua egin eta lixiba egiten zuen. Ura baserrira ekarri zenean, aska bat egin zen eta harrezkero bertan garbitzen zen arropa. "Hautstrapue". Sutako hautsa eta ereinotza erabiltzen zituen amak arropa garbitzeko.

Transkripzioa
- Eta ur-korrientia? Zure goguan ya... ez dakit, umetan...
- Bai. Ur-korrientie nik lau-bost urte, lau urte neukezela sartu zan gurien. Sartu zan ez, e! Kanpotik. Kanpora. Kanpuen ein eben zer bat... erropak garbitzekue ta jotekue ta harri bat eta... [Depositтuakin] han distribuziño bat; bost etxei partidu geuntsen edo zien, ein eben. Hori etorri zan, ba... hori etorri zala die hirurogeta hemeretzi urte edo holan; nik lau urte edo holan neukezela, ta larogeta hiru pasaute deuka´z. Oseaske, bai, hortxe, hirurogeta hemeretzi, hor-hor, hor-hor ekarri zala ure. Artietan erretenien... "erretena" guk esaten dotsau, ba, lur-bidien atxurraz etaratako kanala? Han, han etorten zan. Goixen hartu ta, ba...
- Eta erropak garbitzeko-eta ama zelan ibiltzen zan? Edo, bueno, sukalderako ura bihar zanian edo edozer gauzatarako?
- Ba...
- Erekatik hartu bihar edo...?
- Hori uroi ipiñi zanien ondo. Artietan hara errekara lexibie [eitten] juten giñen astuakin. Astuakin tiñako bat hartu, han, sue ein ta egosi ta han eitten eban bere biherrak. Eta gero, ba, erropa bustixek etxera ekarri astuen, ta gero eskegi edo zabaldu edo zertu, siketu. Baiña errekara, e! Ta errekara, holan, hara behera, ha beheko zulora. Ta han ein sue ta... Paraje... Parajie zan, ba, auzue juten zana; txandaka antzien, ze batera... Han bat zan. Han jun biher zan etxe bat. Ta zu goxetik juten baziñen, beste bat bazkalostien edo... Bi ezin zeikezan egon, ze sue eitteko leku bat euen; tiñakue ipintteko, ta sua ein ta... lexibie esaten jakon.
- Orduan, zeuen moduan, beste guztiak be bardin arreglatzen zian, ez?
- Nahi ebana, nahi ebana.
- Nahi dot esatia, basarri guztietan bardin arreglatzen zian?

- Bai, bai, bai, ez euen...
- Astuakin tiñia eruan eta lixibia bertan eitten zeben?
- Ez euen beste... beste erremedixoik ez euen. Ez dao beste zerik. Gero ure etorri zanien, ba, bakotxak zerak ein zittuen, askak, --aska... aska...ure franko-- ta han harri bat joteko edo zeratzeko ta ordun ondo! Ordun fuf! Ordun...
- Dotore, ez? Elegante...
- Bueno...!
- Eta astuan erropia eruan, errekara juan, eta tiñia be zelan eruaten zenduen? Astuan kargauta edo...?
- Ba, hantxe. Hantxe zeozelan. Nik ez dakit... Ze materixal izengo zan be ez dakit eta. Ez dakit ze materixal izengo zan, ze egurre ezin leiken izen; izen biher eban metala derrior, ze suek bestelan erre eingo eban. Metala. Ta... ze materixel izengo zan? Ba, "ni idea".
- Eta bertan, han, leku bat preparauta zeuan...?
- Bai. Azpixen ein sue, hori ipini ganien, ta [hametik], ba, tiñakuen han egosten zan. Ta ganien "haus-trapue" esaten jakon --ha amak beti gordeta eukitten eban--, haus-trapue ganien. Ba, tela sendo bat izeten zan, ta ha ipini ganien, erropa zeren ganien, ta haren ganien suteko hautse. Ta eriñotza. Eriñotza bastante sartzen eutsen harek zerai, lixibiai. Eriñotza. Ta eriñotz-usaiñe --"laurel" edo hori, zuk ezautzen dozu, ezta?--, eriñotz-usaiñe edarra da gero, e! Erropak be bai, jazten danien be usein edarra! Ta asko sartzen jakon.
- Ta haura ze izaten zan orduan, usaiña emoteko ta...?
- E?
- Usaiña emoteko izaten zan, orduan, ereiñotza?
- Ba, edo... Ez dakit, ba, garbittasunerako ala useiña emoteko, baiña usein edarra eukitten eban, e! Edarra, edarra, edarra! Bai.
- Eta gero erropa guztiak berriz basarrira ekarri eta gero han esegi...
- Bai, bai, bai. Han be lagatzen bazendun, hara jun ein biher zan! Ta ez zan ha... luzie zan baiño txarra. Bajatu biher zendun eta igon ein biher zendun atzera ta, ba, han ahal dala ez zan itxi biher ezer, ze ostera bat nahikue izeten zan. Ta, baiña orduko bizimodue, andrazkuandako batez be...

15. Emakumearen bizimodua baserrian

- **Erref**: MAL-018/017
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:40:25. **Bukatu**: 00:42:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
Emakumearen bizimodua baserrian. Aitaren izaera. Ermura morroi joan zeneko kontuak. Etxe hartakoak nolakoak ziren. "Aikoprakak" (?).

16. Mallabiko auzo desberdinetan auzo-eskolak; herriko eskola

- **Erref**: MAL-018/018
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:42:45. **Bukatu**: 00:44:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Eskola kontuak. Gerea auzoan eskola ederra izan zuten. Sukaldea eta aldagela ere zituen. Goita auzokoak ere bertara hasi ziren joaten sasoi batean. Zengotita eta Berano auzoetan ere eskola zuten. Osmakoak herrira joaten ziren.

17. Eskola kontuak: irakasleak nolakoak ziren; zigorrak

- **Erref**: MAL-018/019
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:44:30. **Bukatu**: 00:47:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:
Maistrak. Zigorrak. Irakasle bat batez ere oso jotzailea zen. Euskaraz hitz egitearren zigorrak ipintzen zituzten.

18. Euskararen egoera: zigorrak; debekuak

- **Erref**: MAL-018/020
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:47:40. **Bukatu**: 00:50:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Amorotoko senide baten inguruko kontuak. Hileta-elizkizuna. Amuriza abade zegoen bertan eta orduan kontatutako istorioa (maistra euskaldun batek mutikotxo bati euskaraz hitz egitearren emandako astindua).

19. Maria Aristondo irakaslea

- **Erref**: MAL-018/021
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:50:50. **Bukatu**: 00:53:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:
Maria Aristondo irakaslearen inguruko gogoetak. Eskolan ikasitako kanta. "Goazen mendirik mendi...".

Transkripzioa
- Orduan, maistrak danerakuak, ez? Batzuk gogorrak, kastiguak-eta ipintzen zittuenak, eta beste bat, eibartar hau, Maria Aristondo edo zelan zan?
- Bai, bai...
- Horrena rekuerdo ona dakazu, ez?
- Horrena ona? Horixe ona! Horretxekin inguruen horixe... Hori hor lagako naben nik morroe bialdu niñuenien. Ta hori zan... Horrek errekreuen ta ordu librietan igul hartu umiek ta, ba, hor montikulotxo bat deuke Geriek holan, ta, denpora ona euenien, hara eruen ta kantuek erakutsi ta beran gauzak ein ta... Bueno, zan... itzela. Itzela zan.
- Eta bera be eibartarra izanda, hemen zeuen etxian egon zan apopillo edo...?
- Ez, ha ez zan egon gurien. Ha ez dakit hemen edo behekuen. Behekuen egongo zan. Horixe... Ha ez zan egon gurien, ez zan egon.
- Baiña gertukua izan arren, basarri baten...
- Bai, bai, bai. Egunero ezin zeikien Eibarrera jun! Ezin zeikien juen. Eske, bidie egon balitze bai. Gero Basurtuko batek, horrek Basurtoko zakarrorrek?
- Bai...
- Horrek kotxie ekarri eban. Bai, kotxie hor eukitten eban; kotxe zahar bat, beti aberixauta eukitten eban. Ta meka...! Hari gorrixok erakutsi [eutsan]; kotxiorrek suelduok jaten eutsen ondo! Bai, kotxie horraiño ekarri eban.
- Lehengunian aittatu zestazun, hau, Maria Aristondok kantuak erakusten zetsuezela asko. Eta kantu bat gogoratu zenduan "Guazen mendirik mendi" edo...
- Bai.
- Goguan dakazu? Kantatzeko moduan oin?
- Bueno, kantau... Zela kantauko dot, ba, nik?
- Ba, lehengunian kantau zenduan ondo-ondo!
- Bai...
- Eske sekula entzun barik nekan eta...
- Gurien gaztiek, ba, zeremonixie egoten da "cada dos por tres" erderaz esanda, ta, ba, batan kunpleañua edo birena batera edo enfin. Ta gero, kantuen-edo, jardun behintzet danok eitten dou. Danok! Danok! Danok! Ta hori etara neutsen nik lehentxuaoko baten. "Hi, nik hamar urte neukazeneko kantue", ta "Zela? Aber, zelan?", ta, ba, bueno:

"Guazen mendirik mendi euskotar gaztiak,
guazen aldatza gora mendigoizaliak
haxe osasuntsu bat, bizitza indartzera,
aberri guztiei agur egitera".

Ta gero "bis". "Bis" ta, ba, horixe da dana. Bat hori da.

20. Gerea auzoa; beraien baserrian apupiloak hartzen zituzten

- **Erref**: MAL-018/022
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:53:35. **Bukatu**: 00:55:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Maistrak eta abadeak apopilo izaten zituzten baserrian. Gerean parrokia dute. Abade-etxea; sakristau etxea.

21. Antzinako usadioak: hilarriak

- **Erref**: MAL-018/024
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 01:01:10. **Bukatu**: 01:02:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:
Eliz bueltan hilarriak daude oraindik.

22. Emakumeak meza-liburuarekin elizara

- **Erref**: MAL-019/001
- **Iraupena**: 0:00:10. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Erlijio kontuak. Emakumeak meza-liburuarekin joaten ziren elizara.

23. Klase desberdinetako elizkizunak

- **Erref**: MAL-019/002
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:00:10. **Bukatu**: 00:00:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Etxejauna eta errenteroak asko desberdintzen ziren. Hileta-elizkizunak ere, klase desberdinetakoak zeuden: primerakoa, segundakoa...

24. Maila ekonomikoaren araberako hileta-elizkizunak

- **Erref**: MAL-019/004
- **Iraupena**: 0:00:20. **Hasi**: 00:02:00. **Bukatu**: 00:02:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
Lehenago, hileta-elizkizun desberdinak egiten ziren hildakoaren familiak zuen maila ekonomikoaren arabera.

25. Hilarrien inguruko ohitura zaharrak

- **Erref**: MAL-019/005
- **Iraupena**: 0:04:25. **Hasi**: 00:02:20. **Bukatu**: 00:06:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Elizaren indarra gizartean. Eliza barruan, familia bakoitzak bere hilarria izaten zuen. Mantel beltza. Otzara handi batean ogia egoten zen. "Olata-garixe". Santikurutz eguneko bedeinkazioa. Pare bat anekdota gai honen inguruan.

26. Santikurutz Eguneko ohitura zaharrak

- **Erref**: MAL-019/006
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:06:45. **Bukatu**: 00:09:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

Laburpena:
Mallabian ez du Santikurutz Eguneko bedeinkaziorik ezagutu. Letaniak auzoetako ermitetara. Erramu Egunean, "sobria" egiten zuten. Ereinotza eta erramuarekin egindako gurutzeak; ur bedeinkatua. Santikurutz Egunaren inguruko esaera zahar bat.

27. Erramu eguneko bedeinkazioak

- **Erref**: MAL-019/007
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:09:25. **Bukatu**: 00:11:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:
Erramu eguneko bedeinkazioa. Zumarraren azalarekin batzen ziren gurutze guztiak. Ur bedeinkatua.

28. Dotrina ongi jakiteak zuen garrantzia

- **Erref**: MAL-019/009
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:11:30. **Bukatu**: 00:12:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:
Elizaren indarra. Dotrina ongi ikastearen garrantzia. Behin baino gehiagotan lehenengo saria irabazi zuen hainbat lehiaketatan. Abadeak Ekin aldizkarian idazten zuen eta bertan ere agertu ziren saria irabazitakoan.

29. Abadeak apupilo baserrian

- **Erref**: MAL-019/010
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:12:35. **Bukatu**: 00:13:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Beraien baserria eliza ondoan zegoen eta sarritan izaten zituzten abadeak apopilo. Abadearekin harremana.

30. Bulak erosi beharra

- **Erref**: MAL-019/011
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:13:30. **Bukatu**: 00:14:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Jai egun batean baserrian lanean jarduteko, bulak erosi behar izaten ziren. Haragia jateko ere bulak behar ziren guraso eta seme-alaba guztientzat.

31. "Akolitoa"ren zereginak

- **Erref**: MAL-019/012
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:14:25. **Bukatu**: 00:16:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Denbora luzez "akolito" bezala egon zen elizan. Bere lanak zeintzuk izaten ziren. "Introducto"-a, latinez egiten zuten.

32. Letaniak

- **Erref**: MAL-019/013
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:16:45. **Bukatu**: 00:18:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:
Letaniak. Noiz egiten ziren (bezperen ondoren); ibilbidea zein izaten zen; e.a. Meza nagusia hasi aurretik, abade eta herritar guztiak "eliz-bueltie" egiten zuten.

33. Abade eta fraideen sermoiak

- **Erref**: MAL-019/014
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:18:10. **Bukatu**: 00:19:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Sermoiak nolakoak izaten ziren. Abade batetik bestera alde handia. Garizuma garaian Arantzazutik fraideak etortzen ziren, eta horien sermoiak izaten ziren gogorrenak. Erromeria eta dantzaldiak gaizki ikusita zeuden; dena zen bekatua. Soinuari, "infernuko hauspua" esaten zioten.

34. Erlijioak zuen garrantzia lehenagoko gizartean

- **Erref**: MAL-019/015
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:19:25. **Bukatu**: 00:20:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Abadeei berorika egiten zitzaien; errespetu handia. Egun, abade gazteagoekin tratua oso desberdina da: "ez dok eta bai dok". Konfesatzearen inguruko kontuak. Erlijioaren garrantzia gizartean; noiz hasi ziren gauzak aldatzen.

35. Mezaren inguruko azalpenak

- **Erref**: MAL-019/017
- **Iraupena**: 0:00:25. **Hasi**: 00:21:35. **Bukatu**: 00:22:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
Akolito egon zeneko azalpenak. Kanpaiak sakristauak jotzen zituen. Meza erdian jo behar izaten ziren kanpaiak, akolitoak jotzen zituen.

36. Ermuko baserri batean morroi; eginbeharrak

- **Erref**: MAL-019/020
- **Iraupena**: 0:04:20. **Hasi**: 00:25:00. **Bukatu**: 00:29:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Ermuan morroi; hango ibilerak. Ongarai baserria. Etxeko beharren arduradun; ganadu-zain... ibiltzen zen Martzel. "Cooperativa de Consumo" Ermuan. Errefuxiatu bat eduki zuten ezkutatuta. Diru kontuak; txanponak.

37. Ermuan morroi; hango ibilerak

- **Erref**: MAL-019/021
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:29:20. **Bukatu**: 00:30:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Gazta; bildotsak; e.a. Ermuan saltzen zituzten. Esnea bezeroei banatzen ibiltzen zen Martzel.

38. Gerra garaian jaiotetxera joan-etorria senideak ikustera

- **Erref**: MAL-019/024
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:34:45. **Bukatu**: 00:38:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Gerra garaiko kontuak. Frontea Kalamuan egon zen 7 hilabetean. Garai hartan bera Ermuan zegoen. Gernika eta Durangoko bonbardaketak. Baserrikoak ezkutatu egin ziren; eta, 14 urterekin, bera geratu zen baserriaren arduradun. Gerea auzora egin zuen joan-etorria, gurasoak eta familia nola zeuden ikusteko. Tropak; moroak. Orduko pasadizoak.

39. Tropak ez ziren Ermuan gelditu

- **Erref**: MAL-019/025
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:38:25. **Bukatu**: 00:39:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Ermuko baserrikoek ihes egin zuten. Erreketeak; gorriak. Tropak pasatu eta berehala itzuli ziren.

40. Gerra garaiko kontuak: fusilatuak...

- **Erref**: MAL-019/027
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:40:15. **Bukatu**: 00:41:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:
Gerrako kontuak. Herrietan egon ziren hildakoak; fusilatuak.

41. Tropak Mallabitik pasatu, eta aurrera egin zuten

- **Erref**: MAL-019/028
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:41:15. **Bukatu**: 00:43:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Tropak pasatu zirenean, non gelditu ziren. Frontea; Bilbon defentsa gogorra. Mallabian bonbak eta tiroak bai, baina soldaduak ez ziren bertan gelditu. Eibartik jende asko joan zen Mallabira ihesi; gehienak kaletarrak.

42. Hegazkin aleman bat Ermuan jausi zeneko pasadizoa

- **Erref**: MAL-019/029
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:43:45. **Bukatu**: 00:46:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Gerrako pasadizoak. Durango eta Gernikako bonbardaketak. Hegazkin aleman bat jausi zen Artamendiko sagastian, Ermuan. Pilotuaren inguruko azalpenak.

43. Gerra garaiko kontuak; Errepublikanoen baliabideak

- **Erref**: MAL-019/030
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:46:25. **Bukatu**: 00:47:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Zaldibartik Olakuetarako bidean beste hegazkin aleman bat jausi zen. Errepublikaren aldeko tropek ez zuten baliabiderik alemanen eta Francoren tropen aurka egiteko.

44. Bonbardaketak Durangon, Gernikan

- **Erref**: MAL-019/031
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:47:20. **Bukatu**: 00:50:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:
Durango; Gernikako bonbardaketa. Auzoko gizon bat ere Durangon hil zen. Auzoko familia bat Munitibarren hil zen.

45. Errepublikaren aldeko soldaduen baliabideak

- **Erref**: MAL-019/032
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:50:40. **Bukatu**: 00:51:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gorriek antolamendu eta baliabide gutxi zituzten.

46. Soldadutzako kontuak

- **Erref**: MAL-019/035
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:56:10. **Bukatu**: 00:59:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Oiartzunen egon zen soldadu sasoi batean. Azkenengo urtean Etxalarren egon zen. Zapatari moduan jardun zuen ia soldadutzako denbora guztian.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-23

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com